

2016/17

Startinnova, "Gure proiektua martxan"

Arrate, Goretti, Helene, Ione eta Uxue



# BALORE PROPOSAMENA

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

### **JANTZI-SAIAGELA BIRTUALA**

#### *On-line erosteko laguntza paregabea*

Gaur egun, jende askok beldurra dio internetetik erosteari, izan ere, arropa-etxe desberdinek neurri ezberdinetako jantziak egiten dituzte. Hori dela eta, askotan, arropa erosten dugun markaren arabera, gure neurriak aldatu egiten dira. Honi konponbide bat emateko eta jendeak segurtasunez erosi ahal izateko aplikazio bat eratzea bururatu zaigu. Honi esker, etxean egonda, beraien neurriko arropa zein den eta nola geratzen zaien jakin ahal izango dute. Horretaz gain, aplikazioan aurki ditzakegun arropak beraien artean nola konbina ditzakegun jakiteko aukera ere emango du, honekin bezeroek denbora asko aurreztea lortuko dute.

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Idea bakar eta ikaragarri honek, norberaren gorputzaren hiru dimentsiotako irudi erreala sortzen du eskura duzun teknologia aparatuan. Aplikazio hau besteetatik ezberdintzen da, esate baterako; hartzen dituen neurrien zehaztasuna handiagoa izango delako. Ondorioz, honek zure erosketen arrakasta bermatuko du.

Bezeroek gure enpresa, produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoia da, eta lehiakideengandik bereizten gaituena.

- Gure balioa:
  - Kualitatiboa: Zerbitzu bat eskaintzen dugulako.
- Lehiakideengandik bereiz gaitzake honakoen bitartez:
  - Berritasuna
    - Orain arte egin ez den gauza bat da, originala eta samurtasun asko ematen duen aplikazioa delako.
    - Neurri zehatzak lortuko ditugu, neurriak sarriago hartzen baitira.
  - Pertsonalizazioa
    - Hizkuntza gehiago. (+euskara, frantsesa, alemana...)
    - Kamara bidez sortuko den maniki errealak (zure 3D-ko irudia izango da) neurri zehatzak izango ditu, neurriak sarriago hartzen baitira.

- Lana erraztea
  - Orain arte sortu diren aplikazioek ematen ez duten aukerak ematen ditu. Adibidez, arropa zure gorputzaren manikian saiatu eta gustuko arropa aplikazio berdinean erosteko aukera izango duzu.
  - Zure gorputzari ondo dagokion arropa proposatuko dizu.
- Diseinua
  - Kolore gehiago eta biziak.
  - Deigarria izan arren erabiltzeko erraza izango da.
  - Aukera ezberdinak zure gustuen arabera. (Adb. Arropa aukeratzeko mailaketa ezberdinak, irizpide desberdinekin).
- Arriskuen murrizketa
  - Segurtasunez erosi, hau da, arropa zure gorputzean saiatzearen berdina denez beti asmatuko du erosleak!
  - Neurri zehatzak lortuko ditugu, neurriak sarriago hartzen baitira. Ondorioz, honek zure erosketen arrakasta bermatuko du
- Eskuragarritasuna
  - Teknologia berri guztietan egongo da eskura. (adb. mugikor, tableta, ordenagailuak...).
- Erabilerraztasuna
  - Gida ulergarriak izango ditu bezeroak, gaizki ulerturik egon ez dadin.